

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 857/2019 Erabakia, abenduaren 27koa. Onestea Gizarte Ongizate-rako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionario plazen 2019rako enplegu publikoaren eskaintza

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 23.1 artikuluan, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran, xedatutakoarekin bat etorritik, "Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira".

Nola ez den onetsi Estatuaren 2019rako Aurrekontu Orokorren Lege proiektua, Konstituzioaren 134.4. artikuluan jasoriko xedapena aplikatuz indarrean da Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea.

Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren ekainaren 3ko 6/2018 Legeak mugak eta beteki-zunak ezartzen ditu langile berriak sartzeko, eta muga horien barruan onartzen du sektore eta administrazio jakin batzuetan enplegu publikoaren eskaintza deitzea, betiere gastuen aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu baliabideak errespetatzen badira. Horrez gain, lege horren 19. Bat.2. artikulua honako hau xedatzen du:

"Administrazio publikoek aurreko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak bete baldin badituzte, ehuneko 100eko berrezarpen-tasa izango dute. Gainera, ehuneko 8ko tasa erabilgarri izango dute, efektiboak indartu behar dituzten eremuetan edo sektoreetan aplikatzeko; betiere aurrekontuaren egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren esparruan. Ehuneko gehigarri horri lehentasuna emango zaio, besteak beste, honako egoera hauetako bat gertatzen denean: zerbitzu publikoak ezartzea; jarduera turistikoaren ondorioz, urtaroko jarduera handitzea; edo langile askok erretiroa hartzea. Toki-erakundeek zorpetze-eragiketen arloan bete beharko dituzte Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeetan edo toki-ogasunak arautzeko lege arautzaileetan ezartzen diren zor-mugak."

Halaber, 19. Bat artikulua honako hau xedatzen du 7. apartatuan:

"7. Langileen berrezarpen-tasa kalkulatzeko, finkatutako gehieneko ehunekoa bi hauen arteko aldeari aplikatuko zaio: aurreko aurrekontu-ekitaldian hurrenez hurrenko sektore, eremu, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzuak emateari utzi dioten langile finkoen kopurua, batetik, eta horrelakoetan aipatutako ekitaldian sartu diren langile finkoen kopurua, bestetik; lan-eskaintza publikotik datozenak edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak kontuan hartu gabe, betiere. Ondore horietarako, zerbitzu-prestazioa honako arrazoi hauek direla eta uztea hartuko da kontuan: erretiroa, heriotza, uko egitea, lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-egoeran deklaratzeko, karrerako funtzionarioaren izaera galtzea edo lan-kontratua amaitzea, edota lanpostua erreserbatzea edo lanpostua uzten den Administrazioaren aldetik ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozer administrazio-egoera."

Halaber, kontuan hartuko dira beste administrazio publiko batzuetarako lekualdatze-lehiaketan ondorioz sortutako altak eta bajak.

Barne-sustapeneko prozesuen bidez betetzeko deitzen diren lanpostuak eta epai judizial bidez langile mugagabe ez-finko deklaraturako langileei dagozkienak ez dira kontuan hartuko berrezarpen-tasaren bidez zehaztutako plazen gehieneko mugaren barruan."

19. Bat artikulua 9. apartatuak xedatzen duenez, Estatuko 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19. Bat.6 artikuluan ezarritakoez gain, baimena ematen da aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarria ezartzeko, eta horien artean izango dira egiturazko lanpostuak izanik eta aurrekontuz hornituak egonik aldi batez okupatuak izan direnak 2018ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan etenik gabe, sektore eta kolektibo haue- tan: administrazioko zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntzakoak, osasun publikokoak eta medikuntzako ikuskatzaitzakoak eta beste zerbitzu publiko batzuetakoak. Unibertsitate publikoetan, administrazioko eta zerbitzuetako langileak bakarrik sartuko dira.

2019ko urtarrilaren 16an, ALHAOn argitaratu zen 820/2018 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionarioentzako plazen 2018ko enplegu publikoaren eskaintza. 820/2018 Erabaki horrek barnean hartu zituen psikologo, gizarte langile eta ezgaituen begirale plazak. Plaza mota horiek hartzen ditu barnean 2019ko enplegu publikoaren eskaintzak ere eta, beraz, hautaketa prozesuen arrazionalizazio eta eraginkortasun arrazoiengatik, aipatutako plazei dagokienez eskaintza horiek batera gauzatuko dira, hautaketa prozesuko deialdi bakar baten bidez.

2018ko urtarrilaren 10ean, ALHAOn argitaratu zen 827/2017 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionarioentzako plazen 2017ko enplegu publikoaren eskaintza. 827/2017 Erabakiak barnean hartu zituen, besteak beste, erizain laguntzaileen 3 plaza, desgaitasun intelektuala dutenentzat gordetako kupoaren kariaz, sistema irekiaren bidez betetzekoak. Halaber, 2019ko urtarrilaren 16an, ALHAOn argitaratu zen 820/2018 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionarioentzako plazen 2018ko enplegu publikoaren eskaintza. 820/2018 Erabakiak barnean hartu zuen, besteak beste, erizain laguntzaileen plaza bat, desgaitasun intelektuala dutenentzat gordetako kupoaren kariaz, sistema irekiaren bidez betetzekoa. Plaza mota hori bera hartzen du barnean 2019ko enplegu publikoaren eskaintzak ere eta, beraz, hautaketa prozesuen arrazionalizazio eta eraginkortasun arrazoiengatik, aipatutako plazari dagokionez eskaintza horiek batera gauzatuko dira, hautaketa prozesuko deialdi bakar baten bidez.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak 37.1.l) artikuluan aurreikusi bezala sindikatuekin negoziatu ondoren, erabaki honen xedea da onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2019rako enplegu publikoaren eskaintza. Aipatutako uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikuluaekin bat etorritik, aurrekontu zuzkidura duten eta hutsik dauden lanpostuak zehaztu dira, zeinak betetzea atzeraezina den zerbitzu publikoen funtzionamendua egokia izan dadin, eta lan eskaintzan sartu dira bai sistema irekiaren bidez bai barne sustapeneko sistemaren bidez bete behar diren plazak, dela txanda orokorrean, dela desgaitasunen bat duten pertsonenentzako erreserba kupoan.

Bat etorritik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamendu araudia onesten duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 13ko 25/2012 Foru Dekretuak 11.b) artikuluan aurreikusitakoarekin, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari dagokio, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria denez gero, Foru Gobernu Kontseiluari proposatzea, alde aurretik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari proposatuta, onets dezala erakunde autonomo horren enplegu publikoaren eskaintza.

Horregatik, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuko langile funtzionarioen plazen enplegu publikoaren eskaintza 2019rako; plaza horiek erabaki honekin batera doan eranskinean daude jasota.

Bigarrena. Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 55. eta 56. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, barne sustapeneko sistemaren bidez sartzeko gordetzen da, eskala bakoitzaren barruan, eranskin horretan aipatzen den plaza kopurua. Plaza horiek kontuan hartu dira berritze tasaren arabera deialdian zenbat plaza sartu ahal diren kalkulatzeko, halako moldez non sistema irekiaren bidez beteko baitira barne sustapeneko sistemaren bidez betetzen ez badira.

Hirugarrena. 1. Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 59. artikuluan xedatutakoa eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak xedapen gehigarrietatik zazpigarrenean ezarritakoa betez, bai eta aplikatzekoa den araudia ere, lanpostu hutsen erreserba ezartzen da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak betetzeko, betiere hautaprobak gainditzen badiutuzte eta, hala dagokionean, desgaitasun maila egiaztatzen badute. Plaza horien erreserba ehuneko 7koa izango da: ehuneko 2 adimen desgaitasuna egiaztatzen dutenentzat eta ehuneko 5 desgaitasuna oro har egiaztatzen dutenentzat.

2. Adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak aparteko deialdia izango dute.

3. Desgaituentzat gordetako gainerako plazak plaza arrunten deialdian eskainiko dira, erabaki honen eranskinean ezarritakoaren arabera, eta, deialdiaren hautaketa prozeduretan onartuak izateko, gainerako izangaiek bete behar dituzten baldintza berberak bete behar dituzte; beraz, hautaprobetan, hala eskatzen duten pertsona desgaituentzat, denbora eta ingurua egokitu egingo dira, betiere horrek ez badakar hautaprobaren edukia hutsaltzea edo hautaprobetan eskatzen den gaitasun maila murriztea edo gutxitzea.

Laugarrena. Aipatutako eranskin horretan zehazten da zein plazak daukaten euskararen hizkuntza eskakizun aginduzkoa, ezinbestean bete behar dena lanpostua betetzeko.

Bosgarrena. Oposizio-lehiaketa izango da plazetara sartzeko sistema orokorra.

Seigarrena. 1. Enplegu publikoaren eskaintzan eskaintzen diren plazetara sartzeko prozedura eta baldintzak dagozkien deialdietan ezarriko dira, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariaren foru aginduz onetsitako oinarrien arabera.

2. Psikologo, gizarte langile eta ezgaituen begirale plazei dagokienez, plaza mota horiek 2018ko enplegu publikoaren eskaintzan jaso zirenez baina oraindik gauzatu ez denez, hautaketa prozesuen arrazionalizazio eta eraginkortasun arrazoiengatik, plaza horiei dagokienez bi eskaintzak (2018koa eta 2019koa) batera egingo dira, hautaketa prozesuaren deialdi bakarraren bidez.

3. Erizain laguntzailearen plazari dagokionez, zeina baitagokio sartzeko sistema irekian adimen desgaitasuna dutenentzat gordetako kupoari, plaza mota hori bera 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzetan jaso zenez eta oraindik gauzatu ez denez plaza horri dagokion prozesua, hautaketa prozesuen arrazionalizazio eta eraginkortasun arrazoiengatik, sartzeko sistema irekian adimen desgaitasuna dutenentzat gordetako kupoari dagokion erizain laguntzailearen plaza horri dagokionez, eskaintza horiek (2017koa, 2018koa eta 2019koa) batera egingo dira, hautaketa prozesuaren deialdi bakarraren bidez.

Zazpigarrena. Bat etorri enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 70.1 artikuluan ezarritakoarekin, dagozkion hautaprobak 3 urteko epean egin beharko dira, gehienez ere, erabaki hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Zortzigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

ERANSKINA

TALDEA	AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA KLASEA	PLAZA	SISTEMA IREKIA						BARNE SUSTAPENeko SISTEMA					
				TXANDA OROKORRA		DESGAITUENTZAT GORDETAKO KUPOA				TXANDA OROKORRA		DESGAITUENTZAT GORDETAKO KUPOA			
						DESGAITUAK ORO HAR		ADIMEN DESGAITUAK				DESGAITUAK ORO HAR		ADIMEN DESGAITUAK	
				DDHE	DDGHE	DDHE	DDGHE	DDHE	DDGHE	DDHE	DDGHE	DDHE	DDGHE	DDHE	DDGHE
A	A1	211	Psikologoa	1	1	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
A	A1	211	Mediku errehabilitatzailea	1	1	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
B	A2	212	Gizarte langilea	1	2	—	1	—	—	—	1	—	1	—	—
B	A2	212	Lan terapeuta	3	0	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
C	C1	213	Ezgaituen begiralea	3	4	—	—	—	—	—	—	1	—	—	—
D	C2	213	Erizain laguntzailea	9	18	—	—	—	1	—	—	—	—	—	—
D	C2	213	Mantentzeko ofiziala	0	4	—	—	—	—	—	1	—	—	—	—

211: Administrazio Berezia - Teknikariak - Goi-mailako teknikaria

212: Administrazio Berezia - Teknikariak - Erdi-mailako teknikaria

213: Administrazio Berezia - Teknikariak - Teknikari laguntzailea

DDHE: Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna

DDGHE: Derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna